


Plastiko gehiago garunean, gibelean eta giltzurrunetan baino

Mikro- eta nanoplastiko gehiago aurkitu dute giza garunetan, gibeletan eta giltzurrunetan baino. Gainera, ikusi dute partikula gehiago daudela 2024ko laginetan, 2016koetan baino.

2016an eta 2024an autopsia egin zitzaizkien 52 gorpuren gibeletako, giltzurrunetako eta garuneko laginetako mikro- eta nanoplastikoak aztertu dituzte. Lagin guztietan atzeman zituzten plastiko-partikulak. Gibeletan eta giltzurrunetan antzeko kontzentrazioak topatu zituzten, eta nabarmen handiagoak garunetan. Ez zuten diferentziarik topatu ez adinaren arabera, ez sexu, arraza edo etniaren, ez heriotza-arrazoien arabera; baina bai heriotza-urtearen arabera: mikro- eta nanoplastiko gehiago aurkitu zuten 2024ko gibeletako eta garuneko laginetan.




200 nm-tik beherako plastiko-partikulak giza garunaren lagin batean. ARG.: Campen *et al.*, *Nature Medicine*, 2025.

Azkenik, dementzia diagnostikatu zuten 12 gorpuren garuneko laginetan metaketa handiagoa zela ikusi zuten. Egileek garbi adierazi dute asoziazio bat soilik identifikatu dutela, eta horrek ez duela esan nahi lotura kausalik dagoenik. Hala ere, haien ustez emaitzok agerian uzten dute beharrezkoa dela epe luzeagoko ikerketak egitea, populazio handiago eta anitzagoekin, mikro- eta nanoplastikoen metaketak osasunean izan ditzakeen ondorioak argitzeko. ●

Inoiz detektatu den energia handieneko neutrinoa behatu dute

Inoiz detektatu den energia handieneko neutrinoa hauteman du nazioarteko ikertzaile-talde batek. Hain zuzen, orain arte detektatu izan direnak baino 30 aldiz energia gehiago du. Ikertzaileek oraindik ez dakite zein den neutrinoaren jatorria, baina uste dute eguzki-sistemaren kanpotik etorria izango zela.



KM3NeT detektagailuaren irudikapen artistikoa. ARG.: Copyright KM3NeT/CC BY-NC 4.0.

KM3Net itsas azpiko teleskopioak jaso du neutrinoaren ebidentzia. Teleskopioa itsas sakonean dago, eta bi zati ditu: ARCA detektagailua, Siziliatik gertu, neutrinoen astronomiara bideratuta, eta ORCA, Frantziako mediterraneotik hurbil, neutrino atmosferikoen oszilazioak neurtzeko. Neutrino batak detektagailuaren inguruan elkarrekintza izanez gero, partikula kargatuak sortzen dira, eta, horiek argi-erradiazioa igortzen dute.

Hala, KM3NeT/Arca energia oso altuko muoi bat detektatu du. Energia eta norabidea aintzat hartuta, ikertzaileek ondorioztatu dute jatorri kosmikoko neutrino bat dela. Haien esanean, detekzio honek atea ireki die behaketa astronomiko berriei, zeinak aukera emango baitute energia handiko unibertsoa ezagutzeko. ●



Albiste gehiago,
webgunean